

Alkizako Udalak %10 murriztuko du gastua aurtengo aurrekontuan

Udal txikien egoera «berezia» kontuan hartu dezala eskatu dio foru aldundiari // **6**

Ezpalaren urtemuga aldarrikapenez ospatu dute

Kaxilda eta Ezpala gaztetxeen defentsan jarriko dutela indarra esan du Gazte Fronteak // **4**

Gaztandegiek esne bilketarako akordioa

Iazko bolumenean eta aurrez adostutako prezioan egingo dela esan du ENBA sindikatuak // **7**



TOLOSALDEA NORMALTASUNERANTZ

la 50 egun eta gero, larunbatetik aukera dute herritarrek kirola egin edo paseatzera irteteko, ordu egia eta neurriak errespetatuz; kirolariek ere gustura hartu dute etxetik kanpo entrenatu ahalizatea // **2-3**

J.A.D.

Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

Maiatzak 6 eta 7
Ate Irekiak On Line
17:00etatik - 20:00etara



Izena eman

943 65 11 47

@TolosaldeaLH

www.facebook.com/tolosaldea

@Tolosaldealhii



www.tolosaldea.com



Positibo kasu berririk ez da zenbatu eskualdean

Larunbata eta igande artean ez dute positibo kasu berririk zenbatu eskualdean; Asuncion Klinikari ez dago inor birusagatik ospitaleratuta

Erredakzioa

Maiatzaren lehenetik hona positibo kasu bakarra zenbatu da eskualdean; kasu hori Amasa-Villabonan izan da. Datu horiek Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eman ditu. Guztira 232 dira eskualdean koronabirusa agertu zenetik hona kutsatu direnak.

Azken egunetan ez da gaixo berririk ospitaleratu Asuncion Klinikari, eta beraz, momentuz ez dago inor ospitaleratuta.

Datozen egunak erabakigarriak izango dira konfinamendua leuntzeko hartutako neurriei begira. Geroz eta jende gehiagok du baimena kalera ateratzeko, eta ikusi egin beharko da grafikoetan aldaketa nabar-

menik eragiten duen. Uste bezala joaten bada, deskonfinamendurako egokitutako faseak aurreikusitako moduan beteko dira.

ADINEKOEN EGOITZAK

Aurreko ostegunetik igandera bitarte ez da positibo kasu berririk zenbatu Gipuzkoako adineko pertsonen egoitzetan. Eider Mendoza foru bozeramaleak emandako datuen arabera, guztira, gaur arte, 271 adineko gainditu dute koronabirusa, birusak eragindako guztien %49,5ak. Denera, 162 zendu dira eta 115 daude positibo emanda.

Gipuzkoako 14 egoitzatan daude positibo kasuak, momentuz. Horien artean dago Tolosako Iurreamendi egoitza.



14 urtetik gorakoek paseatzera eta kirola egitera ateratzeko baimena larunbatean jaso zuten. ASIERIMAZ

Hankak luzatzeko aitzakiarik ez, neurriak errespetatzen badira

Larunbatean atera ziren herritar asko estreinakoz kalera; paseoak eta kirola egiteko baimena emana du Espainiako Gobernuak, betiere jarritako neurriak errespetatuz

Irti Saizar Artola

Asteburua eta eguraldi ona. Eta paseatzeko eta kirola egiteko aukera, gainera. Ia 50 egun itxialdian egon ostean, larunbatean herritar guztiak izan zuten etxetik irteteko aukera. Pilaketak saihesteko, ordea, kalera irteteko ordutegiak daude finkatuta 5.000 biztanletik gorako herrietan. Eskualdean, Tolosa eta Villabona dira ordutegi horiek mantendu behar dituzten bi herriak.

Beraz, Tolosa eta Villabonaz gainerako herrietan, ordu mugarik ez dute jarri ez paseatzera ateratzeko, ezta kirola egiteko ere, baina, betiere, herri guztiarentzat orokorrak diren hainbat neurri errespetatu behar dituzte: ariketa fisikoari dagokionez, edozein kirol egitea ahalbidetu dute, egunehin behin, udalerrian bertan eta bakarka. Paseoetarako, bizikide batekin irteteko aukera dago; paseo bat egunean.

Tolosa eta Villabonako kasuan, hiru tarte bereizi ditu gobernuek ordutegiari dagokionez: 06:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara, kirol jarduerak egiteko edo paseatzera irteteko; 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara, mendekotasunak dituztenak irteteko; 14 urtetik beherakoak, 12:00etatik 19:00etara. 70etik gorakoak mendekotasunak dituzten adin tartean sartu dituzte, eta, beraz, horien ordutegian ateratzeko aukera dute.

Etxean itxita egotetik kalean pauso batzuk eman ahal izatea, sekulako aldaketa izan da askorentzat. «Lehen erosketak egitea ateratzeko ere arduratu egiten ninduen, zerbait gaizki egiten ariko banintz bezala; orain, gutxienez, baimena badugu kalera lasai irteteko eta lasaiago nabil», zioen Berastegiko emakume batek.

Herrietik ezin atera, ordea, eta herrietako mugak ikusten ibili

dira herritar asko, eta gustura gainera: «Balkoiaren mugak ezagutzen jada nazkatuta geunden», zioen ibartar batek.

Izan da, ordea, larunbatera arte etxetik atera ere egin ez denik: «Martxoan operatu ninduten. Bi hilabete egon naiz etxean, eta gaur atera naiz lehen aldiz», zioen larunbatean, gustura paseatzen ari zen Anoetako adineko batek.

UZZURRE, ELKARGUNE

Tolosar kirolari eta mendizale askorentzat goiz pasarako helmuga izan da asteburuan Uzturre mendia, askatasunaren gailurra. Igandean, esaterako, 09:00ak aldera elkartu zen jende gehien, 10:00ak arteko muga baitzuten kirola egiteko. «Martxa erregulatua dirudi», zioen herritar batek gurutzeko jende andana ikusi zuenean. Hala ere, segurtasun eta babes neurriak errespetatuz osatu zuen norberak bere saioa.



MASKARAK, BEHARREZKO

Garraio publikoa erabili behar duten erabiltzaile guztiak maskarak erabili beharko dituzte. Atzo jarri zen neurria indarrean eta derrigorrezkoa izango da neurria betetzea. Era berean, autobusaren atzeko ateetatik egin behar dira sartu-irten guztiak eta eserlekua hautatzerako garaian segurtasun neurriak ere zaindu egin behar dira. I. SAIZAR

Askatasun sentsazioa

Kirolariei aukera zabaldu zaie entrenamenduak etxetik kanpo egiteko; profesionalek aukera gehiago dituzte, eta federatuek itxaron beharko dute neurriak zabaltzeko

Imanol Garcia Landa

Konfinamendua arintzeko neurrien artean kirolari profesionalak eta federatuei dagozkienak jarri dira martxan atzotik. Federatuek, hau da, lizentzia profesionalak ez dutenek, lehen fase honetan egunean bi aldiz atera daitezke aire librean ariketa fisikoa egitera, 06:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara bitartean, eta udalerriko mugen barruan. Kirolari profesionalak neurri malguagoak dituzte; adibidez, udalerritik kanpo atera ahal dira.

Jon Irisarri leaburuarra Caja Rural txirrindulari taldekoa da. Atzo egin ahal izan zuen bere lehen entrenamendua bizikleta gainean, azpian arrabola izan beharrean errepidea zuela. «Egia esan, sentsazio arraroa da. 14 urtetatik nabil txirrindularitzan, eta iruditzen zait ez naizela behin ere hainbeste denbora egon errepidera atera gabe», azaldu zion Irisarrik ATARIA-ri, entrenamenduan etenaldi bat eginez. «Atera ahal izatea eta lasaitasuna izatea nahi dudana errepideetatik ibiltzeko... momentu honetan pribilegiatua sentitzen naiz».

Askatasun sentsazioa ere nabaritu zuen leaburuarrak: «Antzekotasuna izan behar du, noski, bere ezberdintasunekin, espetxe batetik ateratzearekin. Orain dela bi hilabete ikusi gabeko lekuak ikusten ari naiz, eta sentsazioa oso berezia da». Leaburutik bi hilabetetan ez dela atera azaldu zuen, eta Tolosara jaiste dagoeneko oso arraroa egin zitzaion entrenamendua egitera abiatu zenean.

Igandera arte zalantzak izan zituzten bere taldean, entrenatzaera atera ahalko zuten ala ez. Hasiara batean txirrindularien zerrenda bat atera zen, entrenamenduak egiteko aukera emanaz, eta Irisarri ez zegoen zerrenda horretan, ezta bere taldeko asko ere. «Gero komunikatu bat atera zen azalduz profesional guztiak atera ahalko genuela, eta lasaitua hartu genuen», esan zuen leaburuarrak. Hori bai, entrenamendua egiterako dokumentuak eraman zituen: mugit-



Jon Irisarri, atzo, Leaburun, bere lehen entrenamendua bukatu eta gero. ATARIA

korrean lizentzia profesionalaren kopia, nortasun agiria eta orri batean BOEaren testua txirrindulari profesionalak atera ahal dutela azalduz.

Behin errepidera aterata, helburua iraupena berreskuratzea dela azaldu du Irisarrik. «Erritmo lasai batean ordu dezente egitea da aste honetarako helburua». Probintziaren muga ezarri du Espainiako Gobernuak kirolari profesionalentzat entrenamenduak egiteko. «Zorionez, nire itzuli faboritua Gipuzkoatik atera gabe da. Asteasura joan naiz, Andazarrate igo dut eta handik Oriola jaitsi. Hortik kanpinetatik Zarautzera eta handik Getariara. Gero Garate mendatea igo dut: sekulako ikuspegiak ditu eta gehien gustatzen zaidan mendatea izango da. Ondoren, Meagas igo, Azpeitia aldera joan, hortik Errezilera, eta bukatzeko,

etxera itzuli aurretik Berastegira joaten saiatuko naiz, asko gustatzen baitzait bertaraino igotzea».

Egutegiari dagokionez, orain gutxi jakin da ez dela aurren Euskal Herriko Itzulia egingo, eta ezta Donostiako Klasikoa ere. Caja Rural taldearentzat kolpe handia dela hori jakitea azaldu zuen Irisarrik: «Pena da, niri gehien gustatzen zaidan lasterketak dira. Gure taldearentzat eragin handia du, etxeko lasterketak direlako eta guretzat garrantzitsuak. Espero dut lehenbailehen lasterketak martxan jartzea, bertan behera asko geldituz gero, orokorrean txirrindularitzarentzako kolpe handia izango delako». Ez dute informaziorik egingo diren lasterketen inguruan, baina Irisarrik uste du hiru proba handiak, hau da, Tourra, Giroa eta Vuelta, «salbatzen» saiatuko direla. «Gure aldetik

egin dezakeguna da ahal den ondoen entrenatu, lasterketak egiten direnerako prest egoteko».

URETARA JOATEKO GOGOZ

Iñaki Arratibel kirol medikua da eta Tolosaldea Arraun Klubean prestatzaile fisiko moduan aritzen da. Traineruko arraunlariak profesionalak ez direnez, lehen fase honetan oraindik neurriak antzera mantentzen direla azaldu du, baina dagoeneko irteera bat ikusten dela: «Hemendik pare bat edo hiru asteetara uretako entrenamenduak hasteko aukera izan daiteke. Bitartean ikusi beharko dugu nola mantendu egiten ari garena eta pixkana uretara joateko pausoa nola aurreikusiko».

Hain justu, traineruarekin uretan entrenamendua egiteko aukera bigarren fasean egin ahalko dela dio Arratibelek:

«Multzo txiki bat da, kirolari jakin batzuk, leku jakin batean... Bete beharko dira beste baldintza guztiak, adibidez, ezingo direla aldagelak erabili». TAKEko arraunlarien kasuan, San Pedrora joaten dira, bertako klubak uzten baitie trainerua eta azpiegiturak. Bertara joateko baimena lortu beharko dutela dio Arratibelek, eta kontuan izan beharko dutela zenbat autotan egin beharko duten bidaia, baldintzak betetzeko.

Aste honetan aire librean ariketa fisikoa egiteko aukera izateak, entrenamenduak bitan banatzeko aukera eman die. «Batetik, ergometroarekin eta gimnastika ariketekin jarraituko dute, pixka bat arinduta, eta hori bigarren zatiarekin lotu, hau da, gutxienez ordu erdi bat korrika egitea», esan du Arratibelek. Aire librean aritzeak alde psikologikoa ere baduela dio. «San Pedrora joan-etorriak egitegatik, ez dugu hainbeste korrika saio egiten. Oraingo egoera honek ahalbidetzen duena da korrika saio luzeagoak egitea, eta fase aerobikoarena ere hobeto entrenatzea. Falta zaiguna da berriro uretara joatea, talde lana egitea, eta arraunkera berreskuratzea».

Alde fisikoaren aldetik, arraunlariak «gauzak ondo egiten» ari direla dio Arratibelek. Astero bi edo hirutan ari dira pisua kontrolatzen. «Ni pentsatzen nuena baino hobeto doaz pisuarekin, eta beste urtetan ziur aski gehiago kostatu izan zait kontrolatzea», esan du prestatzaile fisikoak. «Gainera, beraiek eskatzen dute entrenamenduak jartzea, horren gainean daude, eta alde horretatik kontentua gauder erantzun ematen ari diren ikusita: heldu batzuen erantzuna da».

Arraun denboraldia egiteko itxaropentsu dago. «Kirol hau den bezala, talde bakoitza beste-etatik isolatuta, eta gero lehorrean gauzak ondo egiten badira, nik uste dut aurren ligak salbatu daitezkeela modu batera edo bestera», esan du Arratibelek. «Leku batzuk ez daude prestatuta baldintza guztiak aurrera eramateko, eta beste batzuetan ez dago arazorik».

Gaztetxeen defentsa aldarrikatzeko ospakizuna

Tolosaldeko Gazte Fronteak Ezpalaren urtemuga iragarri zuen apirilaren 22an. «Garrantzi berezia du, lantzen ari garen bi lan lerroak uztartzen dituelako»

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Kurtso honetan zehar, TGF-ren indarrak Zizurkilgo Kaxilda eta Tolosako Ezpala gaztetxeen defentsan jarriko zituztela esan zuten: «Gaur-gaurkoz, ordea, langileon kontrolpeko gune bat (Kaxilda) lapurtu digute, baina besteak bizirik jarraitzen duela ospatzeko eguna da» adierazi zuten. Urteurren bereziaren harira, bideo bat argitaratu zuten. Urtean zehar gaztetxean burutu dituzten ekintza kulturalak, formakuntzak eta bestelako ekimenak biltzen dira bertan.

TGF-tik azaldu dutenez, Ezpalaren urteurrena testuinguru murriztailean iritsi da, martxoaren 6an Kaxilda gaztetxea desalojatu ondoren: «Salbuespen egoera honek askatasun politikoak ukatu dizkigula azpimarratu nahi dugu; egoera asko aldatu zaigu eta horrek borroka aurrera eramateko zailtasunak ekarri dizkigu. Kontrara, lurraldearen eta ekoizpenaren antolamendu burgesa aurrera ematen dutenek ez dute inongo arazorik bildu eta nahieran jarduteko. Egoera ho-

netan egonda ere, momentuko gaitasunaren arabera borrokarekin aurrera jarraitzen ari gara; ez dugu indar faltarik».

Arestian aipatutako bideoa, ordea, ez da aurrera eramango duten proiektu bakarra izango. Argazki bilketa bat ere egiten ari dira. Orri zuri batean «Ezpala defendatu» mezua idatzi, eta hori erakutsiz argazkia ateratzea eskatzen dute. Ondoren, irudiak WhatsApp bidez (667 363 956), Instagram bidez (@ezpalagaztetxea) edota helbide elektronikoz (tezpala@ezpalagaztetxea@gmail.com) bidaltzea eskatzen dute. Sare sozialetan zabalduko dituzte bildutako argazki guztiak. «Egoera zail honetan, Ezpala gaztetxea ere bizirik mantentzen delako eta babesa zein elkartasuna ezinbestekoak direlako. Animatu eta adierazi babesa».

KOLPATUENEN DEFENTSAKOKO BALIABIDEAK, MARTXAN

Bestalde, Gazte Koordinadora Sozialistak azaldu duenez, «krisi honen ondorioak pairatuko dituen langile klasea izango da. Izan ere, epe laburrean azkartu



Irailean ospatu zuten Tolosako Ezpala Gaztetxearen eguna, manifestazio jendetsu batekin. IMANOL GARCIA LANDA

ditu krisialdi kapitalistaren erritmoak». Egoera horrek ekar ditzakeen ondorioen aurrean, beharrezkotzat ikusi dute «langileria-aren babeserako dinamikak eta antolakuntza baliabideak handitzea». Horretarako, GKS-tik esan dutenez, «nazio mailan kolektibo kolpatuenen defentsarako baliabideak jarri dira martxan».

Tolosaldeko hainbat eragilekin, eta hainbat mekanismo sortu dituzte «erasoen testigantzak bildu eta defentsarako baliabideak eskaini ahal izateko». Tolosaldeko Gazte Frontea, Antolakuntza Komunala, Gerizpe Tolosaldeko Emakume Langileon Defentsa Taldea eta Tolosaldeko Autodefentsa Laboraleko Sarea dira eragile horiek. «GKS-ren tresnak erabiliz, etxebizitzan, polizia jazarpenagatik edota lan esparruan emandako eraso- testigantzak bildu eta asistentzia juridikoa eskaintzeko bitartekoak martxan jartzea da helburua». Gerizpek, genero problematikari ere erantzungo dio, «aspektu honetan gertatzen diren eraso- testigantzak jasoz». Testigantzak

bidaltzeko edota eragileekin harremanetan jartzeko hainbat bide daudela adierazi dute, helbide elektronikoz bidez, telefonoz edota sare sozialak erabiliz.

IKASTETXEETAN BORROKA IREKITZEKO PREST

Tolosaldeko Autodefentsa Sareak azaldu duenez «ikasturte zaila izaten ari da honakoa ikasle langileontzat». Egoerari aurre egiteko, lehenik, Ikasle Abertzaleen dinamikarekin bat egiten dutela iragarri dute, ondorengo aldarrikatuz: «Orain arteko online ikasketa plana bertan behera utzi eta ikasketa prozesua beharrezko materialaren lanketara mugatzea, konfinamendua hasi zenetik eginiko lanen balio akademikoa nahiz ohiko selektibitate eredu bertan behera gertatzea, ikastetxeak itxita egon diren epean ordaindutakoa itzuli eta hemendik aurrera ez ordaintzea, Lanbide Heziketa dualeko ikasleen praktika egutegia errespetatzea, eta agintari politiko eta hezkuntza ordezkariak ikasle langileon antolakundeekin elkarrikeria mahaia sortzea».

TAS-ren esanetan, aldarri horiek guztiz zilegizkoak dira: «Ikasleoi ikasturte akademikoarekin normaltasunez jarraitzea exijitzen zaigu, baina horretarako ziurgabetasuna, desegonkortasuna eta baldintza falta nabarmentzen dira». Inoiz baino etxeko lan gehiago jasotzen ditugu, edukiaren kalitatea inoiz baino okerragoa denean». Ikasleekin ezer gertatuko ez balitz bezala jotzen ari direla ere salatu dute, «ikasle baliabide materialak, etxeko egoera edo egoera emozionala kontuan hartu gabe. Argi dago ezin dela ikasleria behar bezala ebaluatu».

Horregatik, borroka irekiko dutela iragarri dute, eskualdeko batxilergoko ikastetxeetan. Batetik, online klaseen nahitaezotasuna kentzea aldarrikatzen dute. Bestetik, berriz, beharrezko edukia soilik ematea. Azkenik, egoera honi aurre egiteko ikasleen antolakuntzaren garrantzia azpimarratu dute, eta ikasleri osoari luzatu die prozesu honetan parte hartzeko gonbita. «Zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan».

Bozez hitz egiteko bilera deitu du Urkulluk

Erredakzioa

Hauteskundeak uztailean egiteko marjinarekin jarraitzen du EAeko jarduneko lehendakariak. Bozen deialditik bozak egin arte 54 eguneko epea behar da legez, eta deialdia maiatzaren hirugarren edo laugarren astean eginda, uztaile amaieran egin ahalko dira. Hori dela eta, Urkulluk maiatzaren 14rako deitu ditu berriro taldeak bozei buruz hitz egiteko. Dena den, agian,

epeak murriztu daitezke. Segurutzat jotzen da hautesleen errolda berria izango dela eta hautagai berriak aurkeztu ahalko direla.

COVID-19a dela eta, lehendakariak eta talde politikoei martxoaren 16ko bileran adostu zuten hauteskundeak atzeratzea, eta Urkulluk gerora sinatu zuen dekretua, EAeko Hauteskunde Batzordean txostena aurkeztu eta balekoa jaso ondoren. Pasa den astean, talde politiko bako-

tzeko bina ordezkari bildu ziren Lehendakartzan, «EAeko Osasun Larrialdiko Adierazpena eta bozetara hiru hilabeteko epean deitzeko aukera aztertzeko».


Taldee bi aukera jarri dizkie mahai gainean Urkulluk: bozak uztailean egitea, edo irailean edo urrian. Azaldu dienez, osasun arloko adituek egindako aurreikuspenak adierazten duela «kutsatze arriskua egonkortzeko eta murrizteko fasea» dela oraingoa, eta udan kutsatze maila txikiena

izan daitekeela. Urkulluk dio adituen arabera arriskua dagoela udazkenetik aurrera «gaixotasuna berriro sortzeko. Gainera, ziurra da orduan ez dugula txertorik jarriko».

EAJk esan du botoa ematea herritarren «funtsezko eskubideetako bat» dela, eta, beraz, boza eman ahal izatea bermatu beharra dagoela: «Ezin da eskubide hori, eperik gabe, bertan behera utzi». Urriaren 25a da bozak «legez» deitzeko azken eguna.

EH Bilduren ustez, «herri honi irtenbideak emateko unea da; konfinamenduaren arintzea zuhurtzia handiz egin behar da, eta eboluzioa aztertu». Elkarrekin Podemosen iritziz, «ezin da krisia kudeatu eta, aldi berean, kanpaina egin». PSE-EEren arabera, «osasun eta parte hartze politikorako berme guztiak» eduki behar dira. PP+C's koalizioarentzat, Urkullu «tematuta» dago gaiarekin, eta «EAJren premiak ez dira herritarrenak».

Hitz gurutzatuak




Anagrama Gurutzatuak

Soluzioen anagramak dira zutabeetan emandako hitzak

EZKER-ESKUIN GOITIK BEHERA

- | | |
|------------|------------|
| 1. Egitura | 1. Urdea |
| 4. Azazkal | 2. Ibilera |
| 6. Metrika | 3. Ari |
| 8. Kalitua | 5. Kiloa |
| | 7. Era |




Ezker eskuin

1. Sarirako edo ezagutzarako eskubidea. 2. Zuberoako herria, Basabürüan. Hiri baten inguruko auzo edo herrixka. 3. Hil. Juntagailua. 4. Uribe Kosta, labur-labur adierazita. Lur eremu edo hedadura aski zabal. 5. Kardatuz bizibidea ateratzen duen pertsona. Baratze landare. 6. Norbaitenganako begirune edo onginihi. Zaldia akuilatzeke metalezko atala, zaldunak orpoan lotzen duena. 7. Itsasbazterra. Bokal mehea. 8. Baita. Gari sorta. Begira. 9. Horren jakitun dira. Buruzagia. 10. Afrikako ugaztun, jirafaren familiako. Aginduak.

Goitik behera

1. Beso osoa edo besoaren goiko aldea estaltzen duen jantzi zatia. Ala. 2. Pluralean, elikatzea. 3. Antzerki lan edo film batean, antzezle batek antzezten duen zati. Emakume izena. 4. Urritasun aldia, gabezia aldia. Internet Protokoloa. 5. Behiaren familiako ugaztuna. Puska. 6. Bokala. Erreketa. 7. Lerro eta zutabe modura ordenaturiko elementuen multzoa. Kontsonantea. 8. Hitza, solasa. Dema, norgehiagoka. 9. Neodimioaren ikur kimikoa. Nafarroako udalerria. 10. Angeluez mintzatuz, elkar ebakitzen duten bi planok eratzen dutena. Rutenioa balio du. 11. Sagar mota. Sutea. 12. Gipuzkoako herria, Urola Kostan. Abilak, trebeak.



Alkizako Udalak aurtengo aurrekontua birmoldatu du

Murrizketak zein partidetan egin aztertu eta proposatutako neurriekin gastua %10 murriztea posible ikusten du udalak

Erredakzioa Alkiza

Apirilaren 28an eginiko osoko bilkuran Alkizako Udalak, besteak beste, 2020rako udal aurrekontuan COVID-19aren krisiak izanongo dituen ondorioak aztertu zituen. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri du udalei foru-funtsaren bidez egingo dien ekarpenak % 20-25 bitarteko murrizketa izango duela aurtengo. Horrek eragin handia izango du Alkizako Udalaren ekonomian, sarrearen % 56a osatzen baitu foru-funtsak.

Bilkuran Inaki Irazabalbeitia alkateak azaldu zuen egoera berrira moldatzeko zein pauso eman asmo dituen udalak. Jakitun dira egoera aldakorra dela eta aldagai guztiak ez dituztela mahai gainean, baina proposatutako neurriekin 2020rako gastua %10 murriztea posible ikusten dute.

Irazabalbeitiak honakoa esan du: «Alkizarrok etxeko lanak egingen ari gara egoera berrira moldatzeko, baina bakarrik ezin dugu egin eta lan horretan goiko erakundeak gu laguntzea ezinbestekoa da». Batetik eskatu du foru-funtsean egin behar den murrizketak kontuan izan dezala udal txikien egoera berezia, alegia, aldundiak ez dezala murrizketa tasa bera aplikatu udal guztiengat; bestetik, eskatu du udalaren jardura ekonomikoa mugatzen dituzten baldintzak malgutzea, gastu araua adibidez, udalek mañobratzeko tartea izan dezaten.

Boluntario taldeak maskarak banatu ditu asteburu honetan

AMASA-VILLABONA // Herritar batek 3.500 maskaren donazioa egin dio udalari eta horri esker, doako banaketa egitea erabaki du udalak, boluntario taldearen bitartez. 65 urtetik gorako herritarrei, gizarte zerbitzuetako erabiltzaileei eta egoera ekonomikoki larria duten familiei banatu zaizkie, lehentasun gisa.

Plaza berriak bultzatuko ditu Bertsozale Elkartek

Bertsolaritzaren ikusgarritasunari eusteko eta bertsolarien egoera zaurgarria leuntzeko, 45.000 euro bideratuko ditu Bertsozale Elkartek bere baliabideetatik

Jon Miranda Amasa-Villabona

Eskuartean zituen proiektu asko bertan behera geratu, atzeratu edota moldatu behar izan ditu elkartek. Bertsolaritza mugimenduan osoan eragin nabarmena izan du osasun krisiak eta ohiko bertso plaza berreskuratzeko denbora beharko dela kontuan hartuta, egungo egoerara egokitutako ekimenak jarriko ditu abian.

«Inondik inora espero ez genuen bat-bateko kolpea izan da», Lanku kultur zerbitzuetako Marta Agirrezabalak azaldu bezala. «Lanku erabat lotuta dago plaza da, eta bat-batean geratu gara», gaineratu du. Plazaren etetearen ondorioz, Lanku kultur zerbitzuak larrialdiko ABEE egoeran dago. Martxotik, 400 saio galdu direla kalkulatu du Bertsozale Elkartek. Honek guztiak ondorio ekonomikoki nabarmenak ditu: martxotik ekainera arte, 385.600 euro ingurukoak.

PLAZA INDARTZEKO LANA

Konfinamendu garaian bertsolaritza mugimenduko hainbat eragilek Interneteko online saioak jarri dituzte martxan. Ekimen horiez gain, Bertsozale Elkartek 45.000 euro bideratuko ditu plaza indartzeko eta bertsolarien zaurgarritasun egoera leuntzeko. Aurreko larunbatetik, Internet bidezko bertso plaza aberasten ari



Ingandean Subijana etxean eskainitako saioan, Kike Amonarriz gai jartzten. XDZ

dira, garai honetarako Lankuren bidez hitzartuta zeuden zenbait saio sarean eskainita, eta bertsolarien proposamen ordainduak izatea bermatuta. Lehendik lotuta zeuden eta mantendu nahi dituzten edo datozen hilabeteetan saioen bat antolatu nahi duten antolatzaileei saioak online egiteko aukera eskainiko die Bertsozale Elkartek. Lankutik saioak kontratatzen dituzten antolatzaileei eskainiko zaie aukera. Villabonako Subijana etxean prestatu dute grabaketa lekua, beharrezko osasun neurriak hartuta, baina denborarekin herrietatik saioak beti ere. Saioak osorik eskainiko dira www.bertsoa.eus atarian, zuzenean edo diferituan, antola-

tzaileak erabakitzen duen egunean.

Lehen saioa aurreko larunbatean eskaini zuten eta Oihana Iguraren amasarrak parte hartu zuen. Ingandean, berriz, Erandioko Udalak antolatutako saioan, Kike Amonarriz tolosarrak jarri zituen gaiak Villabonako Subijana etxean eta bertsotan Igor Elortza eta Onintza Enbeita aritu ziren.

Horrekin batera, esperimentazioarako gunea izan nahi du www.bertsoa.eus atariak. Horregatik beste bi ekimen ere jarriko dituzte martxan: *Potokastak*, bertsolari gazteei egindako elkarrizketak entzuteko aukera emango duena; eta *Bidaiak*, inertziak hautsi eta esperimentazio gunea izango dena.

Ekaina hasieran erabakiko dute udalekuen inguruan

ANOETA // Osasun larrialdiatik udalak ez du erabaki oraindik aurtengo udalekuak antolatuko dituen ala ez. Ekaina hasieran hartuko du azken erabakia. Edozein galdera izanez gero gazteria departamentuarekin harremanetan jartzeko eskatu diete gurasoei gazteria@anoeta.eus helbidean edo 688 761 343 telefonoan.

Udalak laguntzak banatuko ditu COVID-19a dela eta

IRURA // DSBE jasotzaileek eta ekonomikoki pareko egoeran dauden herritarrei laguntza bideratuko zaie udaletik. Baita derrigorrezko hezkuntza bitarte dauden haurren familiei ere, jangelarik ez dutenez, etxean gehitu diren energi gastuetan laguntzeko. Etxez etxe telazko maskarak ere banatuko dituzte.

Kirola egiteko bi ibilbide proposatu dituzte Zizurkilan

Egunotarako herritik irten gabe, bi ibilbide proposatu dituzte Hernandorena kultur elkarteak eta Zizurkilgo Udalak

Erredakzioa Zizurkil

Bakarka, aire librean egin liteke kirola herritik irten gabe joan den larunbatetik, eta Zizurkilgo Udalak pentsatu du bizi dugun egoera aukera ona izan litekeela herria hobeto ezagutzeko. Hala, «arazotik aukera sortu nahian», Hernandorena Kultur elkarteak eta Zizurkilgo Udalak bi ibilbide proposatu dizkie herritarrei mendi itzuli bat egiteko Zizurkilgo mugetatik irten gabe.

Binaka egin daitekeen paseoa kasuan, ibilbide horien zati bat soilik egin ahalko da, momentuz, kilometro bateko muga jarri dutelako, «baina izango da horretarako aukera ere aurrerago». Ibilbide guztiei Joxe Arregi plazan jarri diete hasiera puntua baina bultzatzaileek adierazi dutenez bakoitza bere etxetik gertueneko puntuan has daiteke.

«Aurtengo Maiatza Saltsan mugarraren inguruan ardaztuta genuen, eta ekimen hau aurrera eramanez, aukera polita izan liteke herria ezagutzeko ibilbide horiek egitea», azaldu du Iker Urruzola alkateak. Jakinarazi duenez, aurrerago ibilbide gehiago ere jarriko dituzte aurrerago.

Oraingo bi ibilbide hauek proposatu dituzte herritarrentzat: Elbarrena-Herrigunea-Elbarrena eta Salobietarreka-Urkamendi. Zizurkilgo Udalak Hernandorena kultur elkartearekin egindako ahalegina eskertu nahi izan dio.

MUSUKOEN BANAKETA

Aurreko asteburu honetan 70 urtetik gorako adinekoen artean banatu dira Zizurkilgo Udalak eskuratu dituen maskara edo musukoak.

Udalak erabaki du gaitzaren aurrean zaurgarrien azaltzen den taldea babestea lehentasun gisa. Egoera honi aurre egiteko sortu den boluntario sareko kirolariak ziren ostiralean banaketa prestatzen eta beraiek banatuko dituzte maskarak asteburu honetan.



LARRE IREKIERA, EKITALDI SINBOLIKOAN

Abaltzisketako zenbait herritarrek ekitaldi sinbolikoa egin zuten, ostiralean, Larraizko langatik behiak eta behorrak igaroz. Suziria ere bota zuten, ohiturari jarraituz. Lehenengo behiak pasa ziren, eta ondoren behorrak. Jon Zubizarreta alkateak esan duenez, herrikoen artean hitz egin zuten beste urteetan bezala behiak eramateaz. «Nik behor batzuk igarotzea pentsatu nuen. Oso ezberdina izan den urtea bezala geratuko da oroitzapenerako gordeta». I.G.L.

Gaztandegien artean, esne bilketarako akordioa lortuta

ENBA sindikatuak esne bilketa «bermatzen» duen akordioa «oso positiboa» dela dio; kontsumoa sustatzeko kanpaina jarri dute martxan

Erredakzioa

Gaztandegien artean akordioa lortu dela iragarri du ENBA nekazal sindikatuak, eta «oso albiste ona» dela artzain sektorerako adierazi du. Honela, esne bilketa «iazko bolumenetan» eta aurrez adostutako prezioa «bermatuz» egingo dela iragarri dute.

Ostegunean lortutako akordioaren arabera, «TGT eta AGOUR gaztandegiek 250.000 litro gehiago jasotzeko akordioa lortu dute, Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritza eskertuz».

Covid-19aren eragina lehen

sektorera ere iritsi da, eta azpi-sektore bakoitzean izandako eragina ezberdina bada ere, azpimarratzekoa da, ardi sektorean izandakoa sindikatuaren hitzetan. Ostalaritzaren itxierak eragin nabarmena izan du artzain munduan, arkume eta gazta gutxiago salduz, eta horrez gain, «Euskaditik kanpo saldu ohi den Idiazabal gaztaren beherakada» nabarmena izan dela dio.

Artzainek bere ohiko merkaturatze bideez gain, etxez etxeko zerbitzua jarri dute abian, edo zenbait kasutan indartu egin dute lehendik zutena. Gaztandeg

gi industrialek, «esne erosketan murrizketa» ipini izanak, artzainen egoera gehiago larritu zuten.

Orain, aurrera begira, Idiazabal gaztaren kontsumoa sustatzeko kanpaina abian jarri dutela azaldu du sindikatuak. Idiazabal gazta gain, Gazta Berri proiektuko gaztak sustatuz, euskal gaztaren munduari bultzada nabarmena emanez: «Artzainak, bere kabuz, aspalditik dabilta dibertsifikazioaren ildoan jorratzen, gure gazta izarra den Idiazabal beste gazta batzuekin osatzeko, eta bezeroei eskaintza aberatsagoa emateko».

Gizon bat atxilotu dute emakume bat atxikitzeagatik

Villabonako gizonzkoak bere haurra zaintzeko kontratatu zuen emakumea, eta heriotza mehatxuekin atxiki zuten etxean, bere borondatearen kontra

Erredakzioa Amasa-Villabona

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak ostiralean eman zuen jakitera, Ertzaintzak 41 urteko gizon bat atxilotu duela, Villabonako baserri batean emakume bat bere borondatearen kontra atxikitzeagatik. Azaldu duenez, gizonak bere haurra zaintzeko kontratatu zuen emakumea, baina etxera eraman ondoren, heriotza mehatxuekin atxiki zuten bere borondatearen kontra.

Segurtasun Sailaren arabera, emakumeak iaz ezagutu zuen gizona. Horrek bere semea zaintzeko lana eta dokumentazioa eskaini zizkion. Emakumeak lan egiteko eskaintza onartu ondoren, gizonak etxe batera eraman zuen, eta sakelako telefonoa kendu zion. Emakumeak, ordea, pasa den igandean senide bati ahozko mezu bat bidaltzea lortu zuen. Senide horrek Ertzaintza ohartarazi zuen, baina non zegoen ezin izan zuen zehaztu. Ikerketa bati esker emakumea Villabonako lekuren batean zegoela jakin ahal izan zuen Ertzaintzak.

Hainbat egunez aritu zen Ertzaintza inguruetan emakumearen bila, eta azkenean gizona identifikatu ondoren, emakumea Amasa-Villabonan utzita

dagoen baserri batean egon zitekeela ondorioztatu zuen. Hura zaintzen hasi ziren, eta pasa den asteke astelehenean gizonaren ibilgailua handik ateratzen ikusi zuten. Villabona herrian gerarazi zuten autoa. Emakumea autoan bertan zihoan, eta askatu egin zuten. Aldiz, gizona atxilotu egin zuten.

PROTESTA HERRIAN

Amasa-Villabonako Udalak urgentziatzeko bilkura egin zuen albiste jakin bezain pronto, eta eraso matxista gaitzesteaz gain, elkartasuna azaldu eta herritarrei deia egin zien balkoi eta leihoetara ateratzeko. Lurgatz Talde Feministak ere kazolekin ateratzeko dei egin zuen protestarekin bat eginez.

Amasa-Villabonako Udalak, indarkeria edo jazarpena pairatzen ari diren emakumei edo indarkeria zantzuak antzeman dituztenei salaketa jartzeko urratsa emateko eskatzen die. Era berean, udalak emakumeen kontrako indarkeria kasurik bada, Udaltzaingorekin edo Ertzaintzarekin harremanetan jartzeko adierazi du. Edo emakumeen kontrako indarkeria salatzeko telefono zenbakia (900 840 111) erabiltzeko deia egin du.

Hilberriak eta urteurrenak

**Ataria jarrita Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN**

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Maria Jose Mitxelena Lukanbio

Laskorain ikastolako langilea

*Ez da erraza inolaz ere
lagun on bat agurtzea,
baina, Marijo, zuek behintzat,
merez du saiatzea.
Betegarrria izan da oso
zurekin lan egitea,
zure ondoan zaindua eta
maitatua sentitzea.
Horregatik bidezkoa da
zuri hori eskertzea,
eta, nola ez, zu betirako
gure baitan izatea.*



LASKORAIN IKASTOLAKO,
angile, ikasle eta gurasoak

TOLOSA, 2020ko maiatzaren 4an



**Maria Jose
Michelena
Lucambio**



Maiatzaren 4an hil zen, 61 urte zituela

-Goian bego-

Bere senarra: Jose Mari Olano; alaba: Maitane eta Mikel San Sebastian; bilobak: Oier eta Amets; ama: Severiana eta Joaquin (†); ezkon ama: M^a Pilar eta Jose Mari (†); ezkon anai-arrebak: Javi Olano eta Ana Malo; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

IBARRAN, 2020ko maiatzaren 5ean
OHARRA: Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu eta gaur egungo osasun egoera ikusita, agurra senitaratean egingo da.



ASTEARTEA, 2020KO MAIATZAK 5

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetalea@ataria.eus

Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orensa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 05

ATARIA IRRATIA

09:00-13:00. Postalak bidaiariaren tartea, Kantazgora eskualdeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa, Patxadazelkarrizketen tartea, kolaboratzaileen tarreak eta Entzuteko jaiok musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiek eginiko magazina.

19:00. Ahoz Aho Ipuinak ez dira geldituko

20:00. Playback Ataria. Musika saioa, Adriana Gaultier DJrekin.

28 KANALA

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Jon Azaldeg)

11:30. Gaurkoan Tolosalde

12:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Izaskun Lazkano)

12:30. 1, 2, 3 Hemen da Miru!

13:30. Gaurkoan Tolosalde

17:00. Adinberri

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Harri saldak

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Ignacio Olarreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Laramendi, 6 behea 1. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Tenperaturaren behar handia izango dugu, baina giro lasaia. Hai-zeak ipar-ekialdeko ukitu hartuko du eta horrela tenperatura maximoak 8 eta 10 gradu artean egingo du behera atzokoarekin alderatuz, maximoak 23 eta 24 graduan joz goia. Zeruan aldiz, hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta giro lasaia izango dugu.

Bihar. Giro lasaia izango dugu, berriro ere. Ipar-ukituko haizearekin hodeitza handiago izango da, baina hala ere, hodei hauek ez dute bestelako ondorioz ekarriko eta giro ateri eta lasaiekin emango dugu eguna. Tenperaturak ez du aldaketarik jasango eta maximoa 23 eta 24 graduan errendituko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en eta iritzien erantzukizunik.



ERRROMERIA BALIARRAINEN ETA SAREAN

Josu Albisu eta Amets Arteaga trikitilariek Baliarraindik, euren etxetik, ordubeteko erromeri saioa eskaini zuten larunbatean. Aristerrazu Zuzenean Facebook-eko orriaren egitasmoan parte hartu zuten horrela. Albisu eta Arteaga senar-emazteak dira, eta «gustura» parte hartu dute ekimenean: «Noizbait arituta geunden elkarrekin, baina mikrofonorik gabe. Beraz, saiorako egin dugun prestaketa polita izan da, eta gure umeek hori ikusi ahal izatea ere ederra izan da». Interneten saioa jarraitzeko aukera izateaz gain, herritarrek ere entzun ahal izan zuten saioa, bozgorailu batzuk jarri zituztelako herrian. ATARIA



ANOETA - 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



Informazio guztia:

KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484

943 69 02 97